

## 2014/15 ikasturtean, Euskal AEko unibertsitateetan, matrikulak %0,5 gutxiago

### **Master ofizialetan matrikulak %13 gehitu; %40 egin ziren unibertsitate pribatuetan**

2014/15 ikasturtean 67.060 ikasle matrikulatu ziren Euskal AEko unibertsitateetan, %0,5eko beherakada aurrekoaren aldean, Eustaten datuen arabera.

Bolonia planaren ikasketa berriak egonkortu dira; graduak %7 gehitu dira aurreko ikasturtearen aldean; Lehen eta Bigarren zikloetan %-62, matrikula guztien %4,3 besterik ez.

Bi ikasketa-motak kontuan, Gradu eta Zikloetan ari dira ikasle guztien %85. Gainerako %15 gradu ondokoetan: masterretan (%+13) eta doktoregoetan (%+11).

Goi mailako ikasketak unibertsitate publikoan egiten ditu hamar ikaslelik zortzik. Proportzio hau antzekoa da ikasketa-mota guztietan, master ofizialetan izan ezik non 10etik 4 pribatuetan aritu ziren.

### **Euskal AEko unibertsitateetan matrikulatutako ikasleak, ikasketa mailaren arabera. 2014/15 ikasturtea**

|                                           | <b>Guztira</b> | <b>Gizonak</b> | <b>Emakumeak</b> | <b>Aurreko ikasturtearekiko aldaketa (%)</b> |
|-------------------------------------------|----------------|----------------|------------------|----------------------------------------------|
| <b>Guztira</b>                            | <b>67.060</b>  | <b>31.768</b>  | <b>35.292</b>    | -0,5                                         |
| <i>Lehen eta bigarren zikloak</i>         | <i>2.915</i>   | <i>1.470</i>   | <i>1.445</i>     | -62                                          |
| Lizentziaturak                            | 1.344          | 532            | 812              | -65                                          |
| Arkitekturak eta Ingenieritzak            | 1.550          | 930            | 620              | -42                                          |
| Diplomaturak                              | 14             | 4              | 10               | -97                                          |
| Arkitekturak eta ingeniariariza teknikoak | 7              | 4              | 3                | -99                                          |
| <i>Graduak</i>                            | <i>54.413</i>  | <i>25.731</i>  | <i>28.682</i>    | 7                                            |
| <i>Gradu ondoak</i>                       | <i>9.732</i>   | <i>4.567</i>   | <i>5.165</i>     | 12                                           |
| Master ofiziala                           | 5.555          | 2.601          | 2.954            | 13                                           |
| Doktoretza                                | 4.177          | 1.966          | 2.211            | 11                                           |

**Iturria: Eustat. Unibertsitatearen estatistika**

Ikasleen %57 Bizkaian; %30 Gipuzkoan; %13 Araban.

### **Emakumeak %53 dira euskal unibertsitateetan**

Unibertsitatean, ehuneko sei puntuko alde, emakumeak gehiago dira. Emakumeak gehiago dira ikasketa-mota guztietan, gradu, master eta doktoregoetan; plan zaharreko lehen eta bigarren zikloetan, %50.

## Graduatutako ikasleen hiru laurden, gizarte zientzietan, juridikoetan, ingenieritzetan eta arkitekturan

2014/15ean 13.297 gazte graduatu ziren, %4 gutxiago aurrekoan baino; %60, neskak: 8.068k gradua jaso zuten; 1.768k diploma, lizentziatura, ingeniaritza edo arkitektura teknika edo goragokoa; 2.933k master ofiziala; 528k doktoregoa.

Euskal AEKo unibertsitarien erdia gizarte zientzietan eta juridikoetan graduatu zen; %25, ingeniaritzetan eta arkitekturan. Osasun zientzietan %12; arte eta giza zientzietan %8; zientzietan %6.

**Euskal AEko unibertsitateetan graduatutako ikasleak sexuaren eta ikasketa adarraren arabera (%). 2014/2015 ikasturtea**



Iturria: Eustat. Unibertsitatearen estatistika

528 ikasle doktoretu ziren; %53, emakumeak. Batez besteko adina, 35; emakumeena, 34; gizonena, 37.

## Ikasketak aukeratzeko orduan bada alderik sexuen artean, oraindik ere

Ikasketak aukeratzeko orduan bada alderik sexuen artean, oraindik ere Gizarte zientzietan, juridikoetan, ingeniaritzetan eta arkitekturan ditugu ikaslerik gehien; hemen aritu ziren emakumeen %66 eta gizonen %85. Aurrekoak gustukoago emakumeek (%54) azkenekoak baino (%16); gizonek azkenekoak nahiago (%46) aurrekoak baino (%39).

Osasun zientzietan emakumeen %16 eta gizonen %6. Arte eta giza zientzietan, eta zientzietan, non ikasle gutxiago ari diren, ehuneko 3 puntuko eta puntu 1eko aldea.

## Unibertsitateko mailak neskek gazteago gainditzen dituzte

Gradua lortzen da 24 urterekin, batez beste. Neskek 23rekin, mutilek 24rekin.

Master batean matrikulatutakoen batez besteko adina, 28; %50ena, 25 baino gutxiago. Nesken adina 27; mutilena 28.

### **Matrikulazioen %23, aurreneko aldikoak**

2014/15 ikasturtean 15.627 ikasle berri matrikulatu ziren euskal unibertsitateetan, aurrekoan baino %3,1 gutxiago eta ikasle guztien %23. %80, publikoetan.

---

#### **Informazio gehiago:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prensa zerbitzua [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tlf: 945 01 75 62*

*Euskal AEKo unibertsitatearen estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago*

*Euskal AEKo unibertsitatearen estatistikari buruzko datu-bankua*